



Euskararen Biltzarra egiteko proposamena

Bihotza, bururik gabe...

Burua, bihotzik gabe...

Burua eta bihotza, bat eginda...

Aurkibidea

1. Sarrera.....	4
2. Helburuak	5
3. Prozedura	6
3.1. Biltzar egitura	6
3.2. Gogoeta taldeak.....	8
3.3. Komunikazioa eta internet.....	9
3.4. Hedapena eta jarraipena.....	9
4. Kronograma	10
5. Baliabideak	11
6. Aurrekontua	13

1. Sarrera

Eusko Ikaskuntzak, aro berrian, bost lan ildo landu nahi ditu eta, horietako bat, euskararen normalizazioa da.

Proposamen honen bidez, Iberbak ildo hori osatasunez lantzeko estrategia eta bide orri zehatz bat proposatu nahi dio Eusko Ikaskuntzari: bost urtetik behin egingo litzatekeen biltzarra eta biltzarren arteko dinamika iraunkorra.

Euskararen ildoan proposatutakoa ondo ateraz gero, egitura bera planteatu liteke Eusko Ikaskuntzaren gainerako lau lan ildoetarako. Izan ere, Euskal Herrian une honetan bizi dugun egoera ekonomiko, kultural eta sozialean indargune handiak zein ahulezi ikaragarriak batera ditugu:

- Euskal Herrian zientzia eta arlo desberdinetan egiten diren biltzarretan, normalean, gai oso espezifiko lantzen dira. Hau da, ez dago zientzia arlo bien edo gehiagoren arteko zubia egiten duen bilkurarik
- Bestetik, arlo batzuk oso anitzak dira, bai eragile aldetik, bai egitura aldetik. Esaterako euskararen arloa: ikastetxeak, euskaltegiak, administrazioak, euskara elkarteak... Edo euskal kultura: musika, antzerkia, zinema, literatura... Horietan ere, arlo horretan parte hartzen dutenen arazoak antzekoak badira ere, ez dute elkarrekin ezer egiteko ohiturarik
- Diziplinartekotasuna da beti aipatzen den baina oso gutxitan aplikatzen den gauza da, eta gainera, inoiz baino beharrezkoagoa duguna. Royal Society-k esaterako, hitzaldiak antolatzen dituenen bi diziplina uztartzen dituen jendea hobesten du.
- Euskal Herrian zatiketa DNAn daramagun zerbait dela esan liteke. Euskararen munduan, badirudi oso gutxitan elkartzen garela denok zerbait egiteko: Korrika eta ikastolen jaiak kenduta, ez dago proiektu bateraturik. Enpresa munduan sindikatuak batetik eta enpresak bestetik. Herrigintzan antzera...

Euskararen normalizazioaren ildoak lantzeko Biltzar (Kongresu) bat egitea proposatzen dizuegu, arrazoi askorengatik:

- Indarrak batzen laguntzen duelako.
- Ikusgarritasun egokia eskaintzen duelako.
- Garatzeko metodologia erraza eskaintzen duelako.
- Autofinantzatzeko aukera gehiago dituelako .

Abantailez gain, honako beste alderdi hauek nabarmendu daitezke:

- Gogoeta lantaldeetan oinarritutako prozesuaren bidez egingo litzateke, non taldeak izango duen protagonismoa.
- Eusko Ikaskuntzak administrazioei, euskararen erakundeei eta euskaltzaleei gogoeta eta elkarlanerako aukerak eskaintzen dizkien prozesu bat litzateke.
- Interneten bidezko komunikazio sare bizkorra sortuko litzateke, proposatzen den gogoeta prozesuen fluxuak ondo kudeatzeko eta ondorengo hedapen eta jarraipenean laguntzeko.
- Sektoreen egituraketa eta elkarlanerako prozesua errazten duen gogoeta prozesua litzateke.

2. Helburuak

Euskararen Biltzarraren helburuak honakoak lirateke:

- Euskal Herriko euskararen normalizazioarekin zerikusia duten arlo guztien arteko zubi lana egitea.
- Diagnostiko bateratu bat egitea, norberaren ikuspuntua baldintzatzen duten faktoreetatik haratago joanda. Horrela, azken mende honetan, eta bereziki, azken 30 urteotan izandako bilakera aztertuko litzateke, ikuspuntu guztietatik: administrazioak, euskararen erakundeak eta herritarrak oro har. Bertan euskararen normalizazioan emandako aurrerapen eta geldialdiak ikusiko lirateke.
- Diagnostikoa arlo bakoitzera ere eramatea: irakaskuntza, administrazioa, helduen euskalduntzea, hedabideak, elkartegintza, lan mundua, musika, literatura, corpusa... Sektore bakoitzak bere diagnostikoa egingo luke baina besteek ekarpenak egiteko aukerarekin.
- Euskararen Plan Estrategikoa egitea, 5 urtetarako. Horrez gain, sektore bakoitzak bere plana egingo edo azalduko luke, eta besteek ekarpenak egiteko aukera izango lukete, plan guztiak, ahal dela, ahalik eta kohesionatuenak izan daitezzen.
- Euskaltzaindiak, corpusaren ardura izanik, administrazioekin, erakundeekin eta herritarrekin dituen harremanak hobeto uztartzea corpusaren normalizazioa eraginkorragoa izan dadin.
- Elkarlanaren kultura arlo teoriko eta praktikoan sustatzea
- Munduan estaturik gabeko hizkuntzei buruz dauden joerak, proiektuak... hobeto ezagutzea. Eta Euskal Herriak mundura erakutsi ahal diona ere hobeto zabaltzea.
- Eusko Ikaskuntzak euskararen normalizazio arloko eragile, enpresa eta erakundeekin harreman trinkoa izatea.
- Euskal Herriak behar duen **ikuspegi eta praxi MAKROA** sortzen laguntzea.

3. Prozedura

3.1. Biltzar egitura

Biltzarra izango litzateke gogoeta egiteko proposatutako egitura. Honek abantaila asko eskaintzen digu prozesu partehartzailea bideratzeko paregabeko aukera delako: aurretiko bilerak, aurrez aurreko azalpenak, txostenak bideratzea, ikuspuntuak bateratzea, arlo guztietako kideen zein kanpoko pertsonen parte hartzea erraztea, ekimenari ikusgarritasuna ematea, konpromisoak hartzeko gune egokia eskaintzea, etab.

Kideentzako egokiagoa. Bestetik, administrazioen edo gainerako euskaldungintzako erakunde batzuen tamaina handia ikusita, bost urtetik bost urterako prozesu horrek lagunduko lieke haien egitura handi horietan haien plan estrategikoak Eusko Ikaskuntzak planteatuko lukeenarekin hobeto egokitzen.

Parte hartzeko era anitzak. Biltzar batek pentsa daitezkeen edo beharko genituzkeen parte hartzeko aukera guztiak biltzen ditu:

- Prestatze bilerak: aurretik, biltzarrean bertan, ostean...
- Hitzaldiak, mahai inguruetan antolatuta edo ez.
- Idatzizko edo ahozko komunikazioak: erakunde gisa, sektore gisa, irekiak...
- Internet: hitzaldiei buruzko iruzkinak, biltzarrean hizlariari galdetzekoak, komunikazio birtualak, inkestak, etab.
- Standak: erakundeen eta proiektuen informazioa.
- Amaierako azalpen publikoa, adostutakoa jakinarazteko.

Iraupena. Biltzarra bi egunetakoa izatea ikusten dugu: ostiral eta larunbat goizez eta arratsaldez. Beste aukera bat larunbat arratsaldekoa kentzea litzateke, 2. bazkariko gastua aurrezteagatik.

3.2. Gogoeta taldeak

a) Lantaldeak

Talde hauek prozesuaren zutabeak dira. Hiru motako gogoeta taldeak egin litezke:

Eusko Ikaskuntzari dagozkionak, biltzarra ondo kudeatzeko: Estrategia, Antolakuntza, Komunikazioa eta Finantzazioa.

Arlo edo sektoreei dagozkienak: hemen dinamika bikoitza egongo litzateke, arloa oro har hartuta eta azpiarloak, adibidez:

- Administrazioa
 - Eusko Jaurlaritzza, Nafarroako Gobernua, Iparraldeko erakundea eta haien menpeko erakunde publikoak (osasun arloa...)
- Foru aldundiak eta haien menpeko erakundeak

- Udalak, Mankomunitateak, Kontzejuak eta haien menpeko erakunde edo programak (elkartegintza, merkataritza...)
- Irakaskuntza
 - Lehen eta Bigarren Hezkuntza
 - Lanbide Heziketa
 - Hezkuntza unibertsitarioa
 - Helduentzako hezkuntza, etengabekoa, arautu gabeko hezkuntza, etab.
- Helduen euskalduntzea
- Euskara Elkarateak, herritar euskaltzaleak...
- Hedabideak
- Kultura
 - Liburugintza
 - Musika
 - Antzerkia
 - Elkarateak oro har
- Lan mundua
 - Euskara plana duten enpresak
 - Autonomoak, profesonal liberalak, enpresa txikiak...
- Zenbait
- Ekimen berriak



Zubi lana. Hemen zubi lana egiteko lantaldeak egongo lirateke:

- Adituak: euskararen normalizazioan haien bizitza profesional edo ikerketa lanagatik entzutetsuak diren pertsonak.
- Azpiarloen artekoa: arloaren ikuspegia ondo izateko.
- Arloen artekoa: elkarri zer esan, zer proposatu, nola lagundu...
- Herritarren eta arloen artekoa: herritar bezero, dinamizatzailerik, partehartzaile gisa eta arloen arteko hartu-emanak ondo uztartzeko.
- Arlo publikoaren eta sozialaren artekoa: bakoitzaren erantzukizun, aukera eta eskumenak kontuan hartuta, benetako elkarlana bideratzeko zubi lana egiteko lantaldea.

b) Taldeen egitura

Gogoeta talde bakoitzean 12 bat pertsona egon daitezke parte hartzen:

- Arlo bakoitzak proposatutako 8
- Beste arloetatik etorritako 1 edo 2
- Eusko Ikaskuntzak proposatutako 1 edo 2
- Aditu eta herritar gisa: 1 edo 2

c) Taldeen funtzioak

Talde bakoitzean honako funtzioak egongo dira banatuta:

- Taldeburua: pertsona honek taldea zuzendu behar du, moderazio lanak egin, dinamizatu, erritmoari eutsi...
- Partaideak: taldeko kideak dira, goian aipatutakoak
- Idazkaria: Eusko Ikaskuntzako edo Iberbako langile batek idazkaritza lanak egingo lituzke, deiak, ondoriak jaso eta erredaktatu, materiala prestatu, taldeak eskatzen dizkion lanak egin...

d) Funtzionatzeko era

Talde guztiek urtariletik urrira bitartean hiru bilera egingo lituzkete, bilera lekuak txandakatuz (partaideen herriaren arabera egokituta).

Talde bakoitzak ahalik eta proposamenik kontsentsuatuena eta landuena eraman beharko luke Biltzarrera, bertan zuzenketak aztertzeko eta azken onarpena emateko. Alde handiak ikusiz gero, arlo bakoitzak bere arloaren ardura eta erabakimena izango luke.

Lantaldeko kideek, interesik izanez gero, beste lantaldeetan eramaten ari den gaia jarraitzeko aukera izango dute, besteak beste interneten bidez.

3.3. Komunikazioa eta internet

Hauxe da proposamen honen punturik konplexuena. Gogoeta prozesu on bat eramateko, eskuhartzailea, jendea motibatuko duena, helburu praktikoetan islatuko dena... lortzeko, egitura malgua eta egokia behar da.

Gure usteaz, biltzarra ondo kudeatzeko eta ondorengo jarraipena egiteko aplikazio informatiko bat prestatuko genuke. Sarbidea Eusko Ikaskuntzaren webgunetik egingo litzateke lotura baten bidez. Sartzeko, noski, izena emango litzateke eta Idazkaritzak onartuko luke. Sarbide maila desberdinak egongo lirateke, adibidez, gogoeta talde bateko kideek haien taldeko basean agiriak sortu, gehitu, zuzenduko lituzkete. Baina beste taldeetan egiten ari dena ere ikusiko lukete, edukiak proposatu nahi izatekotan “kanpokoan iruzkinak” atalean sartuz.

Honako elementu hauek izango lituzke aplikazioak:

- Aurkezpena: egutegia, bilera-deiak, partaideak, jarraibideak, informazio orokorra
- Agiri basea: gogoeta talde bakoitzak landutako agiriak, historikoa (etapa bakoitzekoak), zuzenketak...
- Foroak: talde bakoitzeko kideen arteko eztabaida bideratzeko, orokorra eta kanporako irekia egongo dena
- Adierazleak: lau urtetarako helburuak jartzean, jarraipena egiteko erabiliko den adierazle sistema kudeatzeko.
- Inkestak: kanpokoan iritzia jasotzeko atala
- Biltzarrean komunikazioa aurkezteko (ahozkoa ala idatzizkoa)

3.4. Hedapena eta jarraipena

Biltzarra gogoeta prozesuaren mugarri bat da, hurrengo fasera pasatzeko. Biltzarrean bost urtetarako estrategiak, helburuak, jarduerak... definituko lirateke, 2016-2020 arteko eperako. Ondorengo urtean, hau da, 2016an, bertan jarritakoa zabaltzeko prozesua ere ikustaraziko litzateke: nork egin, nola...

Jarraipen sistema bat ezarri beharko litzateke, adibidez, urtekoa. Horrela, adibidez, 2016ko abenduaren amaieran prozesua nola doan jakiteko datuak jaso eta egoera aztertuko litzateke.

Jarraipena ondo egiteko, Biltzarrean adierazle sistema xume baina prozesua neurtzeko egokia zehaztu behar da.

4. Kronograma

Ondoren, proiektu honen oinarrizko kronograma ikus daiteke:

Lanen zehaztapena	2015										2016	2017	2018	2019
	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Ira	Urr	Aza	Abe	Abe	Abe	Abe	Abe
Datu nagusien bilketa														
Gogoeta taldeak antolatzea														
Aplikazio informatikoa prestatzea														
Gogoeta taldeen 1. bilera														
Gogoeta taldeen 2. bilera														
Gogoeta taldeen 3. bilera														
Biltzarra														
Plan Estrategikoaren hedapena														
Plan Estrategikoaren 1. ebaluazioa														
Plan Estrategikoaren 2. ebaluazioa														
Plan Estrategikoaren 3. ebaluazioa														
Plan Estrategikoaren 4. ebaluazioa														

5. Baliabideak

Euskararen Biltzarra egiteko Eusko Ikaskuntzak bere baliabideak erabil ditzake: langileak, idazkaritza... Beste aukera bat zenbait lan eta funtzio Iberbaren esku uztea da.

Ondoren, lan guztia Iberbaren esku utziz gero aurreikusten ditugun baliabide eta aurrekontua jarri da, proiektu honen balorazio osoa egin ahal izateko. Eusko Ikaskuntzak lan eta funtzio batzuk bere esku hartuz gero, noski, proportzioan jaitsiko liriateke gastuak. Funtzio batzuk, ezinbestean, Eusko Ikaskuntzak hartuko lituzke, proiektua bere esku behar bezala egon dadin.

a) Eusko Ikaskuntza

Eusko Ikaskuntzako kideek parte hartu beharko dute prozesuan, prozesua zuzentzeko (erabakiak hartzeko, sortzen diren zalantzen aurrean iritzia emateko...). Parte hartze honek ahalik eta denbora gutxien ekar diezaion, kudeaketa lan gehiago edo gutxiago Iberbaren esku utz daiteke.

Horretarako lehen aipatutako lau lantaldeak zuzenduko lituzke: Estrategia, Antolakuntza, Komunikazioa eta Finantzazioa. Eta ezinbestekoa litzateke ere Arloetako lantalde bakoitzean ordezkari bana jartzea.

Horrez gain, Iberbak behean zehazten diren idazkaritza lanak Eusko Ikaskuntzak berak egin litzateke, Iberbaren aurrekontua murriztuz.

b) Iberba

Bi pertsona jarriko lituzke:

- Biltzar kudeatzailea: Naia Odriozola. Komunikazio Zientzietan lizentziatua, euskara teknikaria eta OEEK (Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea) urtero antolatzen duen Osasun Biltzarreko kudeatzailea.
- Proiektu kudeatzailea: Patxi Alaña Arrinda, euskara teknikaria.
- Lantaldeak: Eusko Ikaskuntzak lantalde bakoitzaren idazkaritza lanak egingo lituzkeen pertsona ez jartzekotan, arlo bakoitza ondo ezagutzen duen eta lan hori ondo gara lezakeen pertsonak bilatuko lituzke Iberbak.

Iberbak erakunde konplexuetako egoerak aztertzen esperientzia du, esaterako, Osakidetzako euskararen lehenengo ebaluazioa kudeatu genuen, berau osatzen zuten 25 erakundeetako hizkuntza egoera aztertuz.

Bestetik, OEEren idazkaritza lana egiten dugu eta hor, ekimen garrantzitsua urtero egiten den osasun biltzarra dugu. Bertan 110-200 pertsona inguruk hartzen dute parte (gaiaren eta herrialdearen arabera) eta idazkaritza lanak geuk kudeatzen ditugu.

Euskalgintzan eskarmentua handia dugu eta 1990 urtetik euskara planak eta euskararen normalizazioaren aldeko proiektuetan hartu dugu parte, une honetan hainbat enpresatan aholkularitza, trebakuntza eta itzulpen lanak egiten ditugularik. Baina bestelako proiektuak ere (batzuk aurreko enpresan): *Euskaldunon Gida*...



Informatikari dagokionez, euskara planak kudeatzeko *Eusplan* aplikazioa eta itzulpenak egiteko *Itzulges* aplikazioak sortu ditugu eta honako hauek ere diseinatu ditugu: *Bilalan*, *OEE*ren webgunea (biltzarren kudeaketa egiteko prestatuta), *Hiztegia.net*, *E-bizi*, eta abar.

c) Arloak

Arlo bakoitzeko erakunde nagusien parte hartzea ziurtatatu beharko genuke, prozesu arrakastatsua izan dadin. Beraz, sukalde lana egin beharko litzateke azarotik urtarrilera: proposamena zalbaldu, iritziak jaso, erakunde bakoitzaren prestutasuna ikusi... Denen zain egon gabe baina ezer publiko egin baino lehen behar diren kontaktuak eginda.

Administrazioen babesa garrantzitsua da eta horretarako, haiek proiektua onartzea erabat onuragarria litzateke arrakasta ziurtatzeko, baita Kontseiluarena ere.

d) Norbanakoak

Maila pertsonalean parte hartu dezaketenak ere proiektura hurbildu behar ditugu: adituak, herritar euskaltzaleak... hainbat ekimenetan laguntzen dutenak eta geure hizkuntzaren sostenguaren oinarri ona direnak. Batzutan haien ekimenak egunkarietako iritzi artikulua edo gutunetan irakurtzen ditugu, edo arlo teorikoan lan interesgarriak dituzten pertsonak... Gure ustean, horrelako ekimen batean oso gustura hartuko lukete parte.

Horretarako, horiek nortzuk diren pentsatu eta parte hartzera gonbidatu beharko genituzke, denak!. Ez dugu kanpoan inor utzi behar, denon laguntza behar dugulako.

5. Aurrekontua

Ondoren aurreikusten diren gastu eta diru sarrerak zehaztu dira. Hiru multzo nagusi daude: gogoeta taldeak, biltzarra bera eta idazkaritza-informatika.

Biltzarra, neurri handi batean finantzatu daitekeen ekimena da, jendeak, horko gastuak ordaintzea logikotzat hartzen duelako (bazkari bat, kafeak...). Horri esker, hemen egiten den proposamena bideragarria dela uste dugu. Biltzarrerako babesle batzuk lortu daitezkeela uste dugu, ekimen ikusgarria delako eta bakoitzari kopuru erabat onargarria proposatzen zaielako.

a) Gastuen aurreikuspena (Iberbak idazkaritza lan guztia hartuz gero)

a) Gogoeta taldeak	6.500
Lantaldeetako kideak: 18 lantalde x 12 bat lagun = 216 pertsona inguru. Pertsona hauentzat, 3 bileratarako dieta gisa 30na euro emango litzateke (erakundeetako ordezkariak dietarik behar ez izatekotan gutxiago izango litzateke)	6.500
b) Biltzarra	13.000
Aretoa eta azpiegiturak (Miramar doan lortzeko aukera egon liteke)	0
Janaria (4 kafe eta 2 bazkari, 180 lagun)	8.000
Kartela eta gidaliburuak	1.000
Hizlariantzako opariak eta bidaiak	3.000
Zenbait gastu	1.000
c) Idazkaritza eta informatika	20.900
Idazkaritza lanak gogoeta bileretan, biltzarraren antolaketan, biltzarraren kudeaketan, Plan Estrategikoaren lau jarraipenetan	11.900
Eusko Ikaskuntzako barruko gastuak	5.000
Informatika aplikazioa	4.000
Gastuen aurreikuspena guztira	40.400

b) Sarreren aurreikuspena

Sarrerak	
Babesak: 5 erakunde garrantzitsu x 3.000	15.000
Diru laguntzak: Jaurlaritza eta aldundiak	10.000
Biltzarraren izen emateak: 180 x 95	17.100
Sarreren aurreikuspena guztira	42.100